

# ELAk funtsezkoak ez diren jarduera guztiak geldiaraztea eskatzen du, eta eragindako pertsonentzako prestazioak ipini

Enplegu-erregulazioek negoziatuak izan behar dute beti, eta aldi baterako tasatuak

Enpresek eta administrazioek lan egitera behartuta dauden pertsonen osasuna bermatu behar dute, kontratazio gehiagorekin, prebentzio-plan espezifikoekin eta zaintzarako prestazioekin

Kutsaduraren aurkako beharrezko neurriekiko konpromisoa agertu du ELAk, baina Errege Dekretuaren izaera zentralizatzailea salatzen du (EAEko eta Nafarroako eskumenak inbaditzen ditu)

Koronabirusaren hedapenak eta hau ekiditeko ohiz kanpoko neurriak hartu behar izanak salbuespe-  
nezko egoeran kokatu gaituzte. Osasun publikoaren krisia dugu, bizitzaren arlo guztietan eragin larriak izaten ari dena. ELAk badaki erronka hau oso zaila dela, eta hori aintzat hartuta jokatu duela konpromisoa agertu du .

Koronabirusaren krisiak azalera ekarri du, berriro ere, kapitalismoa krisi sistemiko bat pairatzen ari dela. Sistema orokor honek interes ekonomikoak lehenesten ditu beste eskubideen gainetik: giza-eskubideak, ekonomikoa, sozialak, kulturalak eta ingurumenari dagozkionak.



Krisi honek nabarmendu du beharrezkoak direla kalitatezko zerbitzu publikoak, zeintzuk bitarteko nahikoak izango dituzten. Eta gogoratu beharra dago murrizte eta pribatizazio politikek, lana eta gizarte arloa prekarizatzeak kalte larria eragin dizkietela zerbitzu publiko horiei, baita osasun sistemari ere; honek orain izugarrizko arazoari aurre egin behar dio, eta askoz indartsuago izan beharko zukeen.

Egoera honetan argi geratu da ere zaintzaren auziari jendartean ez zaiola behar bezala heltzen. Zaintza sistema publiko eta duina behar dugu. Krisia are larriagoa da gobernuek ez dituztelako neurriak hartzen beste erabaki batzuren ondorioei aurre egiteko, esaterako ikastetxeetan eskolak eten izana; honek emakumeengan du eraginik handiena, geu baikara gehienetan seme-alabak zaintzen denbora gehien ematen dugunak, inolako aitortza eta ordainik gabe.

Agerian geratu den zaintza krisiak, noski, egoera ahulenean dauden pertsonak kolpatzen ditu: emakumeak, migranteak, pobrezian edo bazterkeria sozialean daudenak, etxerik gabeak... Horrek berezko desberdintasun egoerak areagotzen ditu, eta batzutan ondorioak ezin larriagoak dira.

Ohartarazi beharra daukagu ezen, aurreko krisi guztietan gertatu izan den moduan (esaterako, 2008ko finantza krisia), koronabirusa beste xede batzutarako baliatu nahi dela: lan- eta gizarte-eskubideak murrizteko; demokrazia eta oinarritzko askatasunak mozteko; enpresei eta kapitalari zergak jaisteko, edota enpresen boterea areagotzeko.

Horrek guztiak erakusten digu erakundeetan nagusi diren politika neoliberalak sustatu duten eredu ekonomiko eta soziala goitik behera aldatu beharra dagoela. Kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazka bere onera ekarri behar da eta bizitza erdigunean kokatu, kapitalaren interesen aurretik.

## **HARTUTAKO ERABAKIAK**

ELA prest dago lanerako eta koronabirusaren hedapena geldiarazteko hartu diren neurriekiko konpromisoa hartu du, gure herriko osasun publikoa babeste aldera. Alabaina, ez da ulergarria pertsonen mugitzeko askatasuna mugatzea (hau beharrezko izanik), kalera ez irteteko exijitzea, eta aldi berean lanera joateko salbuespena ezartzea, baita oinarritzko zerbitzuak ez diren kasuetan ere. Horrela langileen osasuna arriskuan jartzen da (lantokietan zein bertara joateko garraioetan), eta etxean bakar-tuta egoteak osasun publikoan duen eragina indar-

gabetzen da. Hain zuzen, egokiagoa izango zatekeen Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak ausartago jokatu balute; hauek, izan ere, merkataritzan enpresa batzuk hartzen ari ziren erabakien atzetik ere joan dira.

Alarma egoera ezartzen duten espainiar gobernua- ren Errege-Dekretua dela eta, honen kutsu zentrali- zatzailea arbuiatzen du ELAk. Espainiar gobernua- k bereganatzea autonomia erkidegoetako polizien agintea edota osasun sailei zuzeneko aginduak emateko aukera (hots, baita Osakidetza eta Osasunbi- deari ere) eskumenak inbaditzen dituzte eta, ondo- rioz, ezin dira onartu; areago orain arte erakunde guztien diskurtsoan goraiatu denean zenbateko koordinazioz jokatzeko ari ziren. Honek argi utzi du espainiar Estatuarekiko harremanetan ez dagoela inolako alde bikotasunik.

ELAk salatu nahi du gobernua aplikatzen ari diren neurriak langileen egoera alde batera uzten ari di- rela. Nork zainduko ditu gure seme-alabak eskolak eten eta zaintza lana bere gain hartu behar duena- rentzat inolako konpentsazio ekonomikorik ematen ez zaionean? Zer nolako neurriak planteaten dira enplegua galtzen dutenentzat? Onartezina da honen inguruko erantzun konkreturik eman ez izana, ez es- painiar Gobernuak, ez eta Eusko Jaurlaritzak edota Nafarroako Gobernuak ere.

## **ELAren PROPOSAMENAK**

Aipatu dugun bezala, koronabirusaren krisiak agerian utzi du aplikatzen ari diren politikak guztiz aldatu behar direla, beharrezkoa dela trantsizio sozial, ekologiko, feminista eta demokratikoa. Eta bide horrekin bat datorren berehalako erantzuna eskatzen du. Horretarako osasuna babesteko neu- rriak hartu behar dira, baita krisiak eragindako kalte ekonomikoei aurre egitekoak ere:

### **1) Osasunaren eta interes orokorraren babesa.**

- Funtsezko ez diren jarduera guztiak geldiaraztea.
- Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako gobernua- k beren eskumena baliatuz osasun pribatuko bitartekoak osasun publikoaren mesedetan jar dezatela. Gauza bera egin behar da zaintza siste- marekin. Esku-hartze eta ekintza mediku guztiak atzeratu, urgenteak ez badira edota irizpide medikuen arabera, gerora badaitezke. Osasun zentroen hornikutza bermatzeko plan bat egin. Eta telefono arreta eskualde mailan antola dadila.

- Espekulazioari aurre egin. Jarraipena egin behar-beharrezko ondasunekin (elikagaiak, osasun produktuak...); beharrezko izanez gero, prezioen kontrola ezarri.

- Pertsonen zaintza eta garbitasun sektoreetan kontratuak gehitu; lan-karga asko gehitu zaie eskaintzen duten zerbitzua medio (osasuna, zahar-etxeka, etxez-etxeko laguntza, garbikuntza...).

- Garraioetan, oinarrizko ez diren sektoreak geldiarazi ezean, zerbitzua asko gehitu behar litzateke, osasun eskakizunak behar bezala betetzeko.

- Funtsezko zerbitzuetako langile guztien osasunerako eskubidea bermatu, lantoki bakoitzerako plan espezifikoaren bidez. Osalanek eta Nafarroako Lan Osasuneko Erakundeak sektorekako gidariburuak egin behar dituzte, baita urratzen den kasuak zigortu ere (ikuskaritzaren, Ertzaintzaren edota Foruzaingoaren bidez). Prebentzio zerbitzuen eta Mutualitateen kontrola beren gain hartu, funtzio horiek behar bezala bete ahal izateko. Zerbitzu publikoek zuzenean esku hartu behar dute langileen segurtasuna bermatzeko.

- Nolanahi ere, enpresek ziurtatu behar dute ahal den lan guztia etxetik egiteko aukera; lantokietan pilaketak ekidin; segurtasun distantzia mantenduko dela bermatu eta garbitasun produktuak eskura jarri. Malgutasun neurriak ezarri behar dira, eta pertsona zaurgarrientzat, lizentziak.

## **2) Langileentzako estaldura ekonomikoa eta bestelako neurri sozialak.**

- Ohiz kanpoko laguntza ezarri, kotizazio-oinarriaren %100 adinekoa, krisiak eragindako langile guztientzat. Ohiz kanpoko beste laguntza bat ezarri langabezian egon eta estaldurarik ez dutenentzat.

- Laguntza bat ezarri zaintza lanetarako, ikaste-txeetan eskolak eteteak eta antzeko erabakiek eragin dituztenean. Kasu hauetan kontziliatzeko eskubidea bermatu. Erantzukidetasuna sustatzeko neurriak.

- ERTEak direla eta, ELAk exijitzen du negoziatuak izan daitezela. Epe jakin bat izan beharko lukete (15 egun, ikastetxeen itxierak edota alarma egoerak irauten duen beste). Ezin zaie enpresei txeke zuririk eman justifikatu gabeko tarte batez balia dezaten. Aldi baterako langileei bermatu behar zaie euren kontratuak ez direla amaituko.

- Azpikontrataturako enpresetan lana geldituz gero, bermatu behar da langileei ez dutela kontratua galduko, soldata jasoko dutela eta enpresek ez dutela prozesua baliatuko dirua irabazteko (litekeena da administrazioek ordaintzen jarraitzea eta enpresek ERTE bat ezartzea).

- Komunikazio bide zuzen, erraz eta eragingarriak ireki behar dira sindikatuen eta EAEko zein Nafarroako Lan sailen artean.

- Iraungitzeak eten eta epeak eten eta moztea, auzibideetan zein administrazioarekiko harremanetan.

- Enpresentzako laguntzak erabakiz gero, eskakizunekin lotu behar dira, esaterako benetan egoera ekonomiko larrian dauden kasuetarako izatea, deslokalizazioak ekiditea edota laguntzak itzultzea, etorkizunean iristen den etekinaren arabera.

- Oinarrizko eskubide eta beharrianak bermatzea (etxebizitza, elikagaiak, energia...) pertsona guztientzat, batik bat ahulenenentzat. Mekanismoak ezarri etxegabetzerik gerta ez dadin koronabirusaren krisiaren eraginez hipotekak edo errentak ordaindu ez direlako.